

**Euskal Herriko  
One wall  
txapelketea  
Lemoan  
jokatuko da**

11. orrialdea

**Euskal Herrikoan bosgarren Atutxa**

Aitzol Atutxa aizkolari dimoztarrak bosgarren egin eban hilaren 6an jokatu zan Euskal Herriko Txapelketan, finalera heldu dan lehenengo bizkaitarra izanik. Bizkaiko Banakako Txapelketea prestatzen dabil eta txapela lortzeako aukerea badauka, laugarrena litzateke. BEGITU beragaz egon da, egindako ibilbidea errepasetan eta aizkolariak daukazan asmoen gainean berbetan. 10. orrialdea



**Santa Zezilia  
eguna dala  
eta hainbat  
kontzertu  
gurean**

13. orrialdea

TOKIKOM

**begitu**  
arratia ubide zeberio

152

2011ko zehazkiaren 15a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Undurragako presearen barruan

**Kanpoko paraje lasaiak, Undurragako urtegiaren barruan gertatzen danaren konplexutasuna eta garrantzia ostontzen dau.**

**B**ilbo urez horniduten dauan Zadorra sistemearen parte da Undurragako urtegia eta bertan ur-argindarra be egiten da.

1973 urtean eraigi zan preseaa eta harrezkeroztik etenbarik kontroletan dala segurtasuna esan deutso BEGITURI Ana Garcia Partzuergokoak. Aspaldion, arrakala batzuk topau dituela eta horreek konponduteko obrak egin dira. Lurraren mobimentuak, ea ura sartzean dan, uraren presinoa

edota preseak arazoren bat daukan be kontroletan da barruko tuneletan.

Materialen nekea edo naturaren arriskuez gainera, kanpoko arriskurik be ez izateko, azkenengo urteotan araudiak aldatu dira eta lehen baimenduta egoazan gauzak orain galazota dagoz. Holan, ezin da pasau urtegiaren alde batetik bestera presearen gainetik eta bainu eremua zarratu egin dabe. **8. eta 9. orrialdeak**



Undurragako preseaa.

### ARRATIA

**Indarkeria  
matxistearen  
kontra  
konzentrazioa  
Igorren 25ean**

Igorreko Kultur Etxean izango da hilaren 25ean, 19:00etan, indarkeria matxistearen kontrako konzentrazioa. Horrezaz gainera, hainbat ekintza egingo dira gaiaren inguruan Arratiako andra taldeak, talde feministak eta udaletxeetako Bardintasun Sailak prestatuta. Aurten, zinea, antzerkia, irakurtaldiak eta bideoaren bidez, indarkeria matxistek hartzean dituan modu desbardinak salatuko ditue Arratian.

Zehazkiaren 25ean Emakumearen kontrako Indarkeria Deuseztatzeko Nazinoarteko Eguna ospatuten da eta mundu osoan egiten dira ekintzak andra eta neskatxien Giza Eskubideen alde. **7. orrialdea**

### UBIDE

**Ubideko plazea barriztatu dabe**

Amaitu dabez Ubideko plazea barriztatzeko beharrak. Espazio zabalagoa, zoladura ekologikoa eta ubideztarrak egindako diseinua dauka plazeak. Aurrekontua 119.361,48 eurokoa zan eta BFaren laguntzea 69.111,60 eurokoa. Plazea aparkaleku moduan erabilten zan batez be lehen eta orain herritarrak berreskuratu dabe espazio hori. **6. orrialdea**



### ARRATIA

**Konsumo arduratsu taldeak gurean**

Hilaren 2an, EHNEko Isa Alvarez eta Unai Aranguren egon ziran Zeanurin konsumo taldeen bentajak azaltzen eta horreek sortzeako behar dan informazioa emoten. Izan be, Arratiako herri batzuetan batu dira auzotarrak holako taldeak sortzeako. EHNEkoen arabera, honek konsumo sistemea aldatzea dakar, konsumitzaileak bertako eta sasoiko produktuak lortzean dabez eta baseritarrak lan baldintza hobek. **5 orrialdea**



**KANTU HERRIKOIAK**

**ARANTZAZURE JOAN BEHAR DOT**

Loberdatxu bat ifini nion bere bularren erdien, mila legua pasadute be lotan topadu zebien.

-Deabru gaiztoak eraman daiela dendari honen jostura, nonbaisten bere esturik dago neure soineko txamarra.

Arantzazure joan behar dot gabeen edo egunez, Birjina amoni preguntaduten izango bada edo ez.

Untzitxo honek jo abenian itsasoa ta mastria, orduterantxik iriltzarri zen Grazianatxu neurea.

-Eskatu zeituen tijeratxuok askatuteko jostura, sartu zaituen tijeratxuok bihotzetikan barrura.

Birjina amonek baietz dino ta seme jaunonek entzun ez, bioren borondatea balitz bitartekorik behar ez.

-Neure lagunok, eraman naixue aitaren da amen herrire.  
-Mila legua eginde dagoz zure aiten da amen herrire.

-Neure lagunok, bai marinela, oin honi zer in geineio?  
-Belatxu bati amarradute ureri emon geineio.

Grazianatxu, neure laztana zugana biraltzen neude, gaur afariten etorritia egin bazeinke mesede.

Grazianatxu, neure laztana berandu akordeu zara, mila legua pasadute dauz zure aiten da amen herrira.

**Eduarda Bilbaok, Patxiren arrabea, bosgarren bertso lez honako hau kantau eban:**

→Neure lagunok, bai marinela, enaz ni afari gure, afari barik konsoladute dau neure estamangue.

-Neure lagunok bai marinela ..... mila urtean ezin dudana oraintxe dot nik logradu.

Kamatxu zahar bat badegu baia koltxoia bere nahi geunke, abenduko gau, gau luzia da hotzak galduko zendukez.

**Arantzazure joan behar dot**



1978an, Dimako Bargondia auzoan, Ruper Lekuek jasoa.

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**Zemendiaren 14tik 20ra**

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54

**Zemendiaren 21etik 27ra**

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

**Zemendiaren 28tik abenduaren 4ra**

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era

orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15

eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,

14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15

eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40,

16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefonoa:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)  
**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Kudeatzailea:** Inigo Iruarrizaga.  
**Erredakzino taldea:** Ainhoa Duñabeitia, Clara Lujá, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.  
**Maketazinoa:** Inigo Iruarrizaga.  
**Publizidatea:** Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketea:** June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).  
**Tiradea:** 6.400 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.400 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

**Babesleak:**

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa

## ZEURE BERBEA

### Zeure berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Haxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Basurdea



Txarriaren antzeko animalia honentzako udagoiena izaten da sasoirik onena gaztaina, haretx, pago eta abarren fruituak janez loditu daitezak. Basurdeak induska ibiltzen dira, daukien mustur luzeagaz lurrean zuloa egiten, soloetan kalteak eraginez. Oingo denporan be, kazariak basurde edo baso-txarriren bat koiu ezker, okelaz arkoa bete aurretik, bakotxari toketan jakon basurdekia jango dabe taberna edo txoko baten.

## ERETXIA

### Atzerapausoa indarkeria matxistearen burrukan



#### TERE MALDONADO

FeministAlde

**E**uskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2011ko urri bigarrenaren 5ekoan, agertu zan Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistaren Prebentzioarako eta Biktimen Arreta eta Oneratze Osoa izateko Lege Aurreproiektuaren ebazpena. Momentu horretatik aurrera informazino publikorako epea eta alegazinoak aurkezteko zabaldu zan. Hori jakinarazotea aurreproiektua egin dauan erakundeari jagoko, esango deuskuzue ea horren barririk izan dozuen. Gure aldetik, talde feminista batzuk gure alegazinoak aurkeztu ahal izan doguz, azken-azkenengo momentuan. Aikomen horreetako batzuk:

Lehenengo eta behin irudituten jaku aurreproiektuak bardintasun politikak eta andren kontrako indarkeria burrukatzeko politikak aldendu eta urrundu egiten dituala. Ikuspuntu hau guztiz okerra da. Ezinezkoa eta arriskutsua da andren aurkako indarkeria bere erroai, hau da, gizon eta emakumeen arteko desbardintasunari ez lotzea. Ezin da indarkeria prebenidu horren zergaitiai heldu barik eta ekimenak bardintasun politikak ezarri eta garatzeari lotu barik. Zentzu horretan aurreproiektuak kontraesana dauka bere barruan, alde batetik, azalpenak emoteko zatian esaten dau (orain arte egin dan moduan) andren kontrako indarkeria burrukatzeko politika publikoak lotu behar jakiezala bardintasun politikai, baina aurreproiektuaren artikuluak horren kontra doaz. Politika horreek Emakundetik atera (Emakunde da EAEn bardintasun politiken arduraduna) eta erakunde barri batera, bardintasunean eskumen

ez daukan batera, eroaten ditu, Genero-indarkeriaren Biktimai Laguntzeko Zuzendaritzara, hain zuzen be.

Ardurea Eusko Jauriaritzako Herrizaingo Sailari emotea, Emakunderen kalterako emakumeen kontrako indarkeria burrukatzeko koordinazino erakunde bihurtuta, zentzubakokeria da. Emakunderen beharra baztertu egiten dau aurreproiektuak, ez dau aintzat hartzean, eta barriro be, bardintasunaren alde burrukatzeko eta emakumeak buru dituen erakundeak bigarren planoan ixten ditu, merezidu daben protagonismoa eta esker ona emon barik. Ikuspuntu aldaketa hau, atzerapauso argia da indarkeria sexistearen kontrako burrukan, burruka honek urteak daroaz eta, sexismoaren ondoriak bere erroai lotu guran, desbardintasunari, hain zuzen be.

Eta zergaitik erakunde hau kokatzen da Herrizaingo Sailean? Dinogunaz, honek ikuspuntu aldaketa kaltegarria dakar, baina, eraginkorragoa ete? Aurrera ateratzen diran politika eta jarduera guztietan genero ikuspegia egokitze borondaterik badauka

erakunde honek? Orduan, zelan da posible aurten Herrizaingo Sailak berak Hondarriako alarde ez diskriminatzailearen ibilbidea aldatu izana, diskriminatzailearen mesedetan? Alardea bardintasun kontua ete?

Ondo dakigu Herrizaingo Sailaren eta beste sail batzuen -Heziketa eta Gazteria Sailarenak, esaterako- parte hartzea eta konpromisoak ezinbestekoak dirala indarkeria sexistearen kontrako burrukan. Baina zelan da posible Herrizaingo Saila bardintasun politikak ezartzen urteak daroazan erakundeak baino gehiago dala pentsatzera ausartzea?

Aurreproiektuak, Emakunde, Jauriaritzaren bardintasun politiken buru izan behar eban erakunde, albo batera ixten dau. Emakunde sortu zanean, legez, bere autonomia azpimarratu zan, administrazinoko sail konkretu baten menpe ez ipiniz.

Aurreproiektuak, praktikan, planak, proiektuak, programak eta ekintzak bikoiztea ekarriko dau: bardintasun planak eta indarkeriaren kontrako planak, hezikidetza programak eta indarkeriaren aurkakoak, eta abar.

Egia da, erakundeen arteko koordinazino esparruak ez dirala eraginkorrak, baina egia be bada biktimai lagunduten behar egiten daben langileak urteak daroetzala baliabideak eskatzen eta gaur eguneko politika publikoen hutsuneak identifikatu dituela. Baliabide barririk aurreikusten dau lege honek? Dokumentu osoan ez dago neurri konkreturik erakunde barri honek baliabideak ipiniko dituala pentsatzera eroaten gaituanik.

Eta zentzubakokeria honen aurrean Emakunde *missing*.

**BATZ**  
BATZ, S. KOOP.  
Tolosa auzoa, 32  
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez,  
euskeraz eginez

Euskeraz  
Batz on gaitu

HONDARRI

**LUMATUTEN****TXOLI MATEOS****"Ekoherriak"?**

**E**zaguna da ekologismoa kontu moderno dala. Modernoa ezeze, uri handitan bizi diranen eskutik zabaldu da bazterretara. Uri horreetako bizimoduak eraginda, jentek gauza asko eskatzen izan dau: berde gune gehiago eta zemento gitxiago, airea eta errekek garbi egotea, kaleetatik kotxeak ateratea txirindularien eta oinezkoen mesederako, ibilgailu eta taberna zaratatsuai mugak ipintea... Apurka apurka, zabaldu egin dira eskakizunak. Orain ez dala asko, esate baterako, Donostiako kaleetako argiztapen sistemaz eztabaida egon zan... gaubean ezinezkoa dalako bertan izarririk ikustea! Naturaz bere horretan gozatzeko egarria igartzen da holango eskarrietan: ura ur, airea aire eta zerua zeru izan daitezala.

Pentsetan hasita, batek esango leuke geure inguruan bizi garanok

egoera pribilegiatua daukagula. Etxetik urtetan dogunean, kerik ez dogu amasten, txoriak entzuten doguz eta berde guneak, gura dana aukeran. Urbanita askoren enbidiarako? Ezezkoan nago ni. Izan be, eretxia daukat bilbotarren artean, esate baterako, hazi egin dala ardura ekologikoa eta, gure inguruko baserritarrak edo herri txikitako kaletarrok, barriz, ez gara jabetzen arazoaren larriaz.

Baserritarrak, naturatik bizitera ohituta egonda, jaramonik be ez deutso egiten etekinik emoten ez dauanari. Plastiko ziztrina jarriko dau edozein bazterretan merkeagoa edo sendoagoa bada. Bardin da gero haizeak barreaizten badau plastiko hori urteetan zehar. Baina herri txiki honeetan oinezkoak be badagoz! Nor arduratuko da basoaren eta bideen edertasuna mantenduten?

Eta kaletarrok, zoritxarrez, ez gara askoz hobek. Mugarik ez baleuskue ipiniko, kotxea udaletxeko batzar aretora be sartuko geunke. Oraindino be, gure umeak eta gazteak ez dabez ondo bereizten errekea eta zabor ontzia. Farolaz betetzen doguz kaleak (eta jardinak be bai), iluntasunari beldur bageuntso bezala. Eta dezibelioak lagun, sarritan ez dogu jakiten isiltasunaz gozaten... Askok falta dogu daukagun ondarea benetan aprezietan ikasi daigun, "ekoherriak" izan gaitezkan.

**ZERTZEAN****ANGEL LARREA****Gau**

**N**eguko erregina, ilunbea eta itzala, goizetik zatoz, iluntzean, goizean zoaz, egunsentian; pinua eta hagina zara, heriotza eta sexua, beti zatoz, ilunabarrean, egunero zoaz, oilar kantuz; oso zaharra zara, bai, sasoiak baino lehenago sortua. Amets eta Loaren Ama zara, Ilargiaren gaueroko itzala, gazte gar eta sutsuen babeslea, jaioberrien zaintzailea, zakur ulularien konplizea. Katu eta sorginak daude zure zain, mozoloak eta lamiak ere bai, zuk erreinatzen duzunean, kantuz eta dantzaz egiteko jai.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erudian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu eziguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

**BEGI TXINDORRA**

**D**iman, Amantegi aldean atera dau argazki hau Bihotz Gorospek. Egun argitan. Bezpera gaubean be beste basurde bat ikusi ebala kontau deusku igorretarrak. Badirudi basurdeak gero eta gehiago dirala gurean eta ez dirala lehen bezain lotsati; jenteaurrean be, gero eta gehiago agertzen dirala. Etsai tradizionalari, gizakiari, bildurra galdu deusie, antza.

Barri pozgarria da hori. Animaliak konturatu dira gizaki batzuek gero eta gitxiago erabilten dabezala armak, gero eta gitxiago dagozala bizia kentzeako prest. Basurde honek, berbarako, badaki Bihotzek eskuetan daukana ez dana eskopetea, argazki makinea baino.

Larregizkoa ete da piztiaren konfidantza ala munduko barriai kasu egin barik, gizakiok be arma bako mundu bat amestu ahal izango dogu?

Basurdeak ez daki eta ez du erantzuten.



  
**Lorategien Diseinu eta Gauzatzea**  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

**Gorosti**  
LORAZAINTZA

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisci.com](mailto:gorosti@gorostisci.com)

 **Ortodontzia**  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aiderkoa  
Odontologia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bikala  
T. 94 631 50 39

Marina Urigoitia Aiderkoa  
R.P.S. 20/06

**EXCAVACIONES**  
**MARGOIZA**

Isaki  
Martin Gorostiza

Ubideratzeak  
Lurrerauzketak  
Baso pistak  
Ur Putzuak  
Era guztietako hondeaketak

Bº URIBE - 48144 ZEANURI  
Tel. 607 272 424  
610 271 128  
Tel/Fax: 94 433 22 28  
e-mail: [margoiza@euskolnet.net](mailto:margoiza@euskolnet.net)

## ARRATIA

# Konsumo arduratsu taldeak sortu gura ditue Arratian

EHNEko Unai Aranguren eta Isa Alvarez egon ziran hilaren 2an Zeanurin konsumo arduratsu taldeak zelan sortu azaltzen.

### Erredakzioa

Asmo horregaz dabil zeanuriztar talde bat aspaldi honetan. "Baserriz inguratuta bizi gara eta heringo baserritarrak Getxora eta dabiz saltzean. Arratiako baserrietako produktuak konsumidu gura genduan, konsumo talde bat egitea pentsau genduan. Ez bakarrik Zeanurin, badakigu Areatzan, Igorren eta Diman be horretan dabizala" azaldu deutso BEGITURI Zeanuriko talde horretako kide batek. Konsumo arduratsu taldeak gero eta gehiago dira Euskal Herrian, konsumo eredu aldatu eta baserritarrei errentagarritasuna eta konsumitzailerai kalidadeko produktuak bermatzen deusezazalako. "30 talde inguru sortu doguz Euskal Herrian. Ia 1.000 familia dagoz holango taldeetan eta jantokietan be zati bat" azaldu eban Unai Aranguren.

### Kosumo eredu aldatu

Isa Alvarez konsumo talde sarearen koordinatzaileak ekoizpen, merkaturatze eta konsumo moduak alkarri eragiten deusiela azaldu eban. "Eredu nagusi bi dagoz: intensiboa eta agroekologikoa. Lehenengoan, produktu bakarra edo produktu gitxi landatzen dira kantidade handietan merke saltzeako. Horrek eskatzen dau enpresa banatzaile bat, makinaria, lur sail handiak... eta produktu asko saldu ahal daben lekuetan ipiniko dira salgai: supermerkadu handietan. Agroekologikoa, barriz, produktu ugariak eta bertakoak dira, eta merkaturatzeko jente gitxiago behar izaten da" azaldu eban Alvarez.

Konsumo arduratsu taldeak bigarren eredu honen alde egiten dabe. "Baserritarrak pozik dagoz eredu honeguz duintasuna be-

rreskuratu dabelako. Neurritza produzidu eta dana salduta daukie. Errentagarritasuna bermatzen dauan prezioan, gainera" esan eban Aranguren.

### Urteko planifikazioa

Baten batek konsumo talde baten sartu gura dauanean dagoan guztiaguz zerrenda bat emoten jako eta berak gura dauana eta zenbat gura dauan marketan dau. Hiru hileko aprobea egin ostean, urte osoko konpromisoa hartzean da. Holan, ekoizleak badaki zenbat ekoiztu behar dauan.

"Sasoian sasoiak jateko ohitura berreskuritzen dau jenteak. Kuota bat ordaindu eta baserritarrak sasoiak produktuakaz egiten dau otzarea" azaldu eban Isa Alvarez.

Ohitura asko aldatzen dira behin konsumo talde baten sar-



Isa Alvarez Zeanuriko berbaldean.

tu ezker, eta EHNEk jatekoak transformetako, konserbak egiteko eta sukaldaritza ikastaroak be emoten ditu. Badagoz eredu desbardinak be: taldeak, ekonomatoak, kooperatibak...

### Arratian produktore ugari

Arratian badagoz gazte batzuk, gurasoen urteetako biderei erreleboa hartzeako prest. Gainera gaur egun, sistema barriak dagoz, produktzioa errentagarriagoa izan daiten, baserritarren lan baldintzak eta formazioa kontuan hartuta. EHNEk aukera hori emoten deutso bide barri

honetan hasten dan jenteari beti araudi konkretu bat eta kode etiko bat kontuan hartuz.

Herri desbardinatoko ereduak kontuan hartzea garrantzitsua da baina herri edo eta eskualde bakoak eta era berean talde bakoak, bere funtzionetako modu propio eta malgua dauka. Horregaitik EHNEtik formatu irekiak aitatzen dabez eta hau kontuan hartuta, aukera emoten deusez, eurekaz kontaktuan ipini (isa@ehnebizkaia.org) eta eredu egokienean lanean has-teko, bai konsumitzaile edo produktore diranai.

## ARRATIA

# Errekak urten arren, kalte handirik ez

### Erredakzioa

Ehun litrotik gora jaso ziran gurean zemendiaren 5 eta 6an, 109,4 litro, zehazki, Igorren. Ha ta guzti be, euriteak ez eben kalte handirik egin, nahiz eta errekak euren bideetatik urten ziran. Lemoan eta Diman ura etxe batzuetara sartu zan eta garrantzia handirik ez eukien munurrutuak be gertatu ziran kamino eta bideetan.

Dana dala, trafikoari eragin

eutsan euriak, batez be Zeanurin Asterrian. Han urten zan erreka eta N-240 kaminoia ebagi eban. Ertzaintzak ez zituan autoak pasetan itxi hainbat ordutan eta Barazarrera ezin zan joan.

### Ura etxeetan

Lemoan, ibaia hainbat lekutan urten zan bere bidetik eta Txiriboketa Errotan, Tallerretan eta Zubiaren ura etxeetara sartu zan.

Diman, Artzubi inguruan urten zan erreka eta etxe baten sartu. Gauza bera gertatu zan Ziarrustan, "baina ez zan gauza handirik izan. Kalteak ez dira handiak izan. Auzotarren arabera, aurrekoetan baino askoz txikiagoak" azaldu eutsan BEGITURI Rafa Ugalde Dimako alkateak.

Zeberion, Ibarondoko bidean narrea egon zan "garrantzia gitxikoa, bidea be ez eban moztu eta" udal iturrien arabera.

## DIMA



Diman dagoan Arratiako egoitza.

# 37 leku mantenduko ditu Dimako egoitzan Aldundiak

### Erredakzioa

Diman dagoan Arratiako egoitzak Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailagaz lankidetzaz hitzarmena sinatu dau. Foru zerbitzu publikoa emotearen gaineko hitzarmen horren bitartez, menpekotasuna daukien edadekoen egoitzetako Bizkaiko Foru Aldundiak 37 leku gordeko ditu, eurentzat bakarrik, Diman da-

goan egoitza horretan.

Hitzarmen horren indarraldiak 2012ko urtailaren 1etik 2012ko abenduaren 31ra bitartean iraungo dau. Guztira, 1.025.265 euroko kostua izango dau. Momentu honetan, egoitzako leku guztiak dagoz hartuta, eta 75,71 euro kostatzen da leku bakoak eguneko, Foru Aldundiak jakitera emon ebanaren arabera.



Martian izandako uriolak Diman.

## BEDIA

## Udala facebook-en dago

## Erredakzioa

Bediako Udalak bere perfila egin dau facebook-en. Udal iturrien arabera, "herritarren partehartzea bultzatzeko eta proposamen eta kejak zuzenean jaso eta entzuteko" dago Bediako Udala sare sozialean. "Bertan herritarrai erantzungo jakie, alde batetik, eta eguneko barriak gaurkotuta

ipiniko dira, bestetik".

Apostu handia egin dau Bediako Udalak informaziorako teknologia barrien alde. Udal webgunea, [www.bedia.biz](http://www.bedia.biz) be horren adibide da. Holan, besteak beste, San Martin eguneko ibilaldiaren barri emoteko, udalak zuzendutako eta youtube-n eskegitako bideo bat dago.

## BEDIA

## Urbanizazio eta mantenimentu lanak aurrera

## Erredakzioa

Udal aldizkariaren bidez, Bediako Udalak jakitera emon dauz egiten dabizen beharrak eta horreen aurrekontuak. Lau dira obra garrantzitsuenak: Asteitzako urbanizazioaren laugarren fasea, argiteriaren eraginkortasuna hobetuteko lanak, Eroso-Ugarteko homidurarako sarea barriro ipintea eta udal frontoia txukuntzea, hain zuzen be. Guztira 507.530 euroko aurrekontua daukie. Horreetatik 296.451 euro udalak ipiniko ditu eta 211.079 euro, Foru Aldundiak.

Asteitzako lanen laugarren fase honetan, saneamentu eta argiak, gasa eta telekomunikazioak ipintzen eta zorua konpontzen dabiz. Aurrekontua 149.339 eurokoa da eta BFAk 69.111 euro ipiniko ditu.

Eraginkortasun energetikoa hobetuteko, 157.662 euroko inbersinoa dago aurreikusita. Horreetatik 118.216 euro Foru Aldundiko diru laguntza dalarik.

Eroso-Ugarteko hodi sarerako 144.339 euro behar izango dira. Hori egiteko diru laguntza Eusko Jaurilaritzako Ingurumen Sailean eskatu dau Bediako Udalak.

Azkenik, frontoia txukuntzeko 56.189 euro beharko dira, Foru Aldundiak 23.750 euro gaz finantziatuko dau. Egingo diran gauzen artean, teilaturako eskailera bat eta soinu ekipoa ipini eta aldagelak eta kanpoko paret pintatu egingo dira.

## IGORRE

## Udalak parte hartzeako sistema sortzeako foro bi antolatu ditu

## Erredakzioa

Igorreko Udalaren iturriak jakinarazo dabenaren arabera, urri bigarrenaren 24ko plenoan, talde guztien ebatziagaz, partehartzea sendotu eta ardatz bihurtzeko plan bat egitea ebatzi zan.

"Igorreko Udalak bere nortasun ikur eta kudeaketa erizpide nagusi legez ditu gardentasuna, zabalatasuna eta herritarren partehartzea. Bide honetan beste pauso bat emon gura dau udalak parte hartzeako demokrazian sakondu eta horretarako gaur egun martxan dagozan mekanismoak eta esperientziak aintzat hartuko dira. Balorazioa egingo da, bertatik ikasi eta danon artean parte hartzeako sistema bat sortzeako" dinoo udaleko iturriak.

Lehenengoa abenduaren 1ean izango da. Orain arte izandako prozesu parte-hartzaileak eta gaur egun emoten diran prozesuak aztertu eta baloratu dira. Bigarren foroa, abenduaren 15ean izango da eta honetan, Igorretik kanpoko esperientzien barri emongo da, praktika onetatik ikasteko.

Foroak, dinamikoak izango dira, Igorreko Kultur Etxean, arrastiko 18:00etan eta ordu bi eta erdiko iraupena izango dabe.

## UBIDE

## Ubideztarrak diseinatu dabe herriko plazaren barriztapena

Amaitu ditue Ubiden, plaza barriztatzeko egindako lanak. Bitan zatituta egoan plaza bat da orain, irisgarritasuna hobetuz.

## Erredakzioa

Espazio zabalagoa, zoladura ekologikoa eta ubideztarrak euren batzarretan egindako diseinua dauka plaza honek. Lanon aurrekontua 119.361,48 euro zan eta BFAren laguntza 69.111,60 eurokoa. Lanok Lasuen enpresak egin ditu.

Lehen plaza aparkaleku moduan erabilten zan batez be eta orain herritarrek berreskuratu dabe espazio hori. "Orain sarreran leku pare bat itxi doguz zama lanetarako eta beste bat Osasun Zentrorako, baina jentek erraz eta eroso erabili ahal izango dau plaza orain, baita gurgildun aukiaz" azaldu eutsan BEGITURI Josean Pagola Ubideko alkateak.

## Diseinu originala

Ubideztarrak egin daben diseinua sano originala da. Izan be, zoluren koloreak beilegia eta urdina dira eta lurrean, herriaren armarrak

dago, plazako lurzoruaren koloreak errespetata. "Kanpotik be etorri dira ikusten" dino alkateak.

Zoladura beilegia da eta "EcoGranic" zolu ekologikoa ipini dabe. Produktu honen publikidadearen arabera, "EcoGranic zoladurak oxido nitrosoen degradazioan %56eko kutsadura kentzeko eraginkortasuna frogatuta

dauka" eta beste material batzuk berrerabiliz eginda dago.

Plaza zatitzen eban koskea be kendu dabe eta nahiz eta lehengo harria leku batzuetan berrerabili dan, sobran egon da. Ubideko Udalak plazatik ateratako harriak eskuragarri ipini ditu herritarrentzat. Laupabost eskaera jaso dituela dino Pagolak.



Ubideko plaza.

## ARRATIA

## Berbalagun

## Erredakzioa

Arratiako udaletako Euskera Zerbitzuetatik urtero bultzatzen dan proiektua da Berbalagun, euskerearen erabilera soziala bultzatzeko eta euskaldunen sarea indartu eta sendotzeko helburua daukana.

Praktikara etorrita, astean gixienez ordu bete talde txikietan euskeraz berba egiteko aukerea emoten dau eta horretarako euskaldun "zahar" eta "barriak" harremanetan ipinten dauz proiektu honek. Euskerea erabiltea helburu interesgarria izan leiteke honakoentzat: euskaldun barrientzat, arratiera praktikan ipini gura daben euskaldunentzat, euskera jakin arren erraztasuna galduta daukientzat, eta azkenik euskaldun zaharrentzat.

Berba-talde txikietan banatzen dira parte hartzaileak eta taldeak berak ebazten dau zein egunetan, non eta ze ordutan alkartu. Edadea, zaletasunak eta ordutegia izaten dira taldeak osotuteko erizpide nagusiak.

Aurten aurkezpen-ekitaldia atzeratu bada be, martxan dagoz dagoeneko Berbalagun taldeak Arratian. "Igorren, esaterako, 4 talde dagoz. Arratia mailako Berbalaguna indartu gurean, urtean hirutan ekintza bateratuak egiten dabez Arratiako Berbalagun guztiak eta lehengo urteko Berbalagunen balorazioa kontuan hartuta, 2011-2012 ikasturterako ekintza barriztaileak egongo dira: Spa eta afaia, TuperSex-a..." dino Amaia Arauzo, Igorreko Udaleko Euskera Teknikariak "dana dala, ondoen baloretan dana taldekideen artean sortzean dan harremana da". Izena emoteko edota informazio gehiago gura izan ezker, deitu herriko udaleko euskera zerbitzura.

## ZEBERIO

## Aurrekontuak dirala eta batzarrak

## Erredakzioa

Datorren urteko aurrekontuak Zeberion modu partehartzailean egiteko, hilaren azkenengo egunetan batuko da udala alkarteakaz, eta auzotarrakaz abenduaren 2, 3 eta 4an, aldaketarik egon ezean. "Alkarteakaz egingo dogun batzarretara Jubiladu Alkatea, Guraso Alkatea, Austarri Kultur Elkarte eta Ehiztarien Alkatea dagoz deituta. Gazteakaz be batuko gara" azaldu deutso BEGITURI Ana Belen Alberdi Zeberioko alkateak.

Umeen moda 0-20 urte

- Boboi
- Ray
- Aranda
- AKC
- Guecater
- Arandiga
- Giandab
- Leiz
- Hassana

**sein**

LEHENENAKAI AIGARRI, 27 • 946 319 296  
seinmoda@hotmail.com

**GARANTXE Autoeskola**

TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN BUDARAZ

Balorazio: A1, A, B1, B2

Lehenakaiti Agirre 31  
Telefono: 94 673 71 32  
www.garantxeautoeskola.net

**AKESOLO, S.A.**

GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK

Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE BIZKAIA

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**

Instalazio elektrikoak • Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak

Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Telefono-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

**BIXER TABERNA**

Beko kalea, 2 - Telef. 94 631 73 65 - VILLARO

## ARRATIA

# Indarkeria matxistearen kontra agertuko dira arratiarrak 25ean

### Erredakzioa

Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren inguruan, zehazkiaren 25, indarkeria matxisten ikusgarritasunean eta salaketan aurrera egiteko hausnarketa bat proposatzen dabe Arratiako andra taldeak prestatu daben egitarauan. Aurrerapausuak emon diran arren, batez be mobimentu feministari esker, oraindino indarkeria matxistak ugariak eta askotariakoak dira eta horreetako asko ikustezinak. Artearen bitartez —zinea, antzerkia, irakurtaldia, bideoak- ikusgarri egingo dabez indarkeria horren modu batzuk gurean.

### Zehazkiaren 22

19:30ean, Igorreko Kultur Etxean *Egunon printzesa* film laburra (Institutuko irakasleak egingakoa) eta Emakumeen Aurkako



Programea.

Indarkeriaren Kontrako Egunaren programearen aurkezpena.

### Zehazkiaren 24

18:00etan, Zeanurin, Indarkeria sexistearen prebentzioarako tailerra, Idoia Legarretak zuzenduta.

### Zehazkiaren 25

"BILDUR BARIK! Jantzi daigun Lemoa lilaz". Egun osoan zehar ekintzak. Adi luminosotara.

17:00etan, Dimako liburutegian "Dimako andren memoria historikoa"aren gaineko topaketa eta barauskarria.

19:00etan, Igorreko Kultur Etxean konzentrazioa.

### Zehazkiaren 26

18:00etan, Areatzako Udal Aretoan, irakurketa: indarkeria matxistea salatzen dabezan ipuin eta poemak. Ostean, *No tengas miedo* filma eta barauskarria.

### Zehazkiaren 27

17:00etan, Arteko Ludotekan bideoforum-a *Nagore Laffage* filma.

## ARRATIA

# San Andres jaiak

### Erredakzioa / Irati Urien

Hilaren 30ean ospatuten da San Andres. Gurean, Zeanurin (Asterria) eta Igorren (Urkizu) berbarako.

Zeanuriko Asterria auzoko jaien egitaraua bizi-bizi jatorru beste urte batez. Urte, gazte, heldu zein edadeko, danontzako lekua egongo da.

### Zehazkiaren 26, zapatua

18:00etan jaien hasiera ofiziala (txistulariak eta trikitilariak). Ostean herri kirolak. Motozerra, trontzea eta ardi-eskiletea.

19:00etan Idi-parea astoaren aurka.

20:00etan Euskal erromeria Unai eta Adolfo trikitilariakaz.

20:30ean Odoloste jana auzotar eta inguratuten diranentzat.

21:30ean Jantza eta erromeria giroa barriro.

### Zehazkiaren 27, domekea

11:30ean mezea auzoko ermitan. Ostean kantaldia (ermitan): Bilboko San Anton Abesbatza.

### Zehazkiaren 30, San Andres eguna

19:00etan Mezea auzoko ermitan. Ostean txokolatea gura daben guztientzat, txokoa.

Urkizun oster, 12:00etan mezea egongo da ermitan eta ostean barauskarria santuaren eguna ospatuteko.

### San Martin Bedian

Hilaren 11 San Martin eguna izan zan eta gurean badagoz santuari dedikaturako ermitak. Bedian, berbarako, hurrengo egunean ospatu zan Ereñon San Martin jai. Martin Atutxaren omenezko mendi ibilaldi bategaz hasi zan eguna. Gero, hamar eta erdietan Tirituk antolatutako umeentzako jolasak eta txiburduntzia egon ziran eta hamabietan San Martin ermitan mezea.

## ARRATIA

# Arratia-Palenque alkartasun zubiak eregiten

Los Riosko (Ekuador) misinoen eta Arratiaren arteko alkartasunean sakontzeko asmoaz antolatu dan erakusketea zabalduko da zehazkiaren 25ean, Igorren.

### Jon Urutxurtu



Ospitalea.

"Arratia-Palenque. Alkartasun zubiak eregiten" erakusketa ibiltaria zabalduko da Igorreko Lasarte Aretoan hilaren 25ean, arrastiko 19:30ean. Hurrengo hilabeteetan bailarako herri desbardineta egongo da ikusgai. Aldi berean, inaugurazino ekitaldi horretan omenaldia egingo jakie Los Rios (Ekuador) probintziara heldu ziran lehen misinolari arratiarri edota euren familiai.

1948. urtean Los Riosko misino zabaldu eben espedizino 8 misinolarietatik 3 arratiarrak zi-

ran: Maximo Gisasola eta Eusebio Ozerinjuregi zeanuriztarrak, eta Frantzisko Arraibi lemoarra.

Inaugurazino ekitaldian egongo dira Bitor Garaigordobil gotzaina —Los Riosera joan zan lehen taldeko partaidea— eta Jesus Ramon Martinez de Ezkeretotxa, Los Riosko azken gotzain euskalduna. Bertan izango dira Eusebio Ozerinjuregi, Maximo Gisasola eta Frantzisko Arraibiren senitartekoak —eta Arraibi bera osa-

sunak laguntzen badeutso, arratiar hirukotearen lekuko bizi dan bakarra— be. Ez dira faltako Arratiako udaletako eta mankomunitateko ordezkariak ezta arratiar historiazale, solidaritazaleak, Frantzisko, Eusebio eta Maximo gogoratu eta omentzeko.

### Erakusketea

Argazki, mapa eta testuen bitartez, misinoaren historia eta baita gaur egun lurralde hareetan egiten dabizana batzean da erakusketa. Gaur egun lankidetzan, garapenean eta askapenean egiten dabizana lana erakusten da, adibide lez, sasoi haretan Vinceseke parte eta gaur egun udal edo kantoian dan Palenqueko errealidadea aurkeztuz: nekazal kooperatibea, andren beharra, osasuna, herri kultura, heziketea... Eta ez dira ahazten munduko txoko desbardineta misinoetan lanean dabizana arratiarrak, besteak beste.



Landa eskolako jantokiak.

## UNDURRAGAKO URTEGIA

# "Undurragako urtegia kontrolauta dago"

Undurragako urtegia ez da beti hor egon, baina hain dago integrata paisajearen berezkoa emoten daua. Urtegia 1973an egin eben Bilbo Handiko ur hornidura sistema osotutako eta 1998tik ur-argindarra be sortzean da Undurragan. Paisajea lar ez zan aldatu baina honoan geratu zan Intxurrita baserria. 38 urte honeetan, ur bazterreko fauna eta landarediak leku idilikoa bihurtu dabe, non arrantza egin edo paseo bat emon, baina beti inguruaren isiltasunaz eta urte sasoi eta eguraldiaren arabeko paisajearen desbardintasunaz gozatzeko. Baina paraje eder honetan gure gizartean estrategikoak diran ura eta argindarra sortzean dira, eta etekin ekonomiko handiak ateratzen jakoz errekeari. Horregaitik eta natura ezin dalako inoz guztiz kontrolau segurtasunari jagokonean eremu berezia dala esan daikegu.

**Erredakzioa**

Zadorra ur-hornidura sistemearen parte da Undurragakoa. Ullibarri-Ganboa eta Zadorraren urtegien urak Barazarretik doan hoditeria batetik datoz hona eta Undurragatik urak Arrigorriagan dagoan Benta Altako estazinora doaz ura tratau eta edangarri bihurtutako. Handik Bilbo Handira bananduten da. Bilboko hornidurearen %30 Zadorra sistemeagaz egiten da. Eta Arratia be sistema honetatik horniduten dala azaldu deutso BEGITURI Ana Garcia Ur Partzuergokoak.

"Itsasadarreko eskuinaldeko hoditeriak eroaten dauz urak Zaratamora eta hortik Galdakaora. Galdakaok bere sistema dauka, Lekubasokoa eta urak edangarri bihurtzeko Lekueko estazinoa. Sistema honegaz horniduten dira Galdakaoko Eleixalde, Usansolo eta Bedia. Eta sistema hau Arratia sistemeagaz lotu dogu, Igorreko San Kristobaleko urak tratetako estazinoagaz, hain zuzen be. Holan, behar danean, Benta Altako urak Zeanuriraino heltzean dira" dino Garciak.

Bizkaitarrak uraren konsumo arduratsua egiten dabela uste

dau Garciak eta azken urteetan, egin diran kanpainai esker, konsumoa murriztu egin da %30 edo %40 inguruan, Partzuergokoaren esanetan.

1998tik aurrera ur-argindarra be sortzean da Undurragan. Benta Altara bialtzen diran urak, turkoi batzuetan ur-jauziaren indarra indar elketriko bihurtzen da. Urte lehor baten 5.469.254 Kw sortzean diralako estimazinoa egiten dabe eta urte heze baten 7.983.514 kw ingurukoa.

Baina ura Arrigorriagara bialdu arren, legeak agintzen dauan moduan, Arratia errekeari bere emaria bermatzeko lain ur hustutzen dau urtegiak errekan. Horretarako 1.700 mmko diametroko eta 60 m luzerea daukien tutu bi dagoz eta hustubiderako horma ataska bi.

**Segurtasunerako beharrak**

Ur Partzuergoan behar egiten ez dauan ur ingeniari baten arabera, presak 25 urte irauteko egiten dira orokorrean "baina askoz gehiago irauten dabe ezelango problema barik. Tous-en (Valentzia) 1982an preseaa apurtu zan, bai, baina hori beste arrazoi batzuegatik izan zan" dino Maite Molero ingeniariak.

Undurragan obrak egiten dagozala dino Ana Garcia, arraka-

**Barruko galeria bat.**

lak konponduten: "hori normala da eta etenbarik egiten da. Presa barruan tunel batzuk dagoz preseaa kontroletako sistemetara eroaten dabezanak. Honeek antzematen ditue balizko lur mobimentuak edo ea ura sartzean dan edo ea preseak arazoren bat daukan. Aspaldi honetan, ura sartzean zala ikusi zan eta hori konponduten dabiz orain. Astero auskultazino sistema begiratu ten da, tektonikea kontroletako, hau da, presearen egitureari eragin deuslan lur mobimenturik ez dala egon konprobetako".

Egiturea ondo egonda be,

urak presan egiten dauan presinoaa segurtasun baremoen barruan egon daiten, gehienez Kantauri Itsasoko 212m.ko kotan mantenduten da urtegia. "Hilarren hasierako moduko eurite handiak dagozanean, konporta batzuk zabalduen doguz eta ura presearen hondotik urteten da" dino Garciak. Hau da, ur asko dagoanean, presinoaa arintzeko, ura urteten ixten da.

**Kontrolpean**

Lehen aitatutako sistema eta neurriak natura hondamen arriskuak ahalik eta gehien gi-

**Presinoaa arintzeko ura isurtzen dabe.**

**Zugaitik BEGITUTen dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
**Lehendakari Agirre, 8 behea**  
48140 Igorre  
Tfnua: 94 631 80 04

**CERRO ERAIKUNTZAK**  
Beheko suetan, harrietan, azulejoetan... aditua.  
Tel: 605 71 64 17  
Erreforma orokorrak

**GALANTA**  
Bametik janzteko  
Zugaitik sartu hurbil  
Zure erosketak  
Olent...  
Olent...  
Galant,  
Galant.  
Lehendakari Agirre 23, Igorre  
Telefonoa: 94 631 90 08

**ARA OTZ**  
Landsteak 0 Jabetzen!  
Benta Ugarina 2. et. - ADIAT Doma - Bilbo  
[www.aramoz.com](http://www.aramoz.com)

**ellauri HOTELA**  
Naturazko ospitalea  
Landa Turismoa  
Erreforma Zerbitzuak  
Altuza 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | [ellauri.com](http://ellauri.com)

**OPEL**  
**Ibaigane, S. Coop. Ltda.**  
Estazioa, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Telfo: 631 33 30 - 631 31 31  
Fax: 631 36 15

**expert ARRATIA**  
E-posta: [expertarratia@cordevi.com](mailto:expertarratia@cordevi.com)  
Lehendakari Agirre, 16 Tel: 94 673 60 55  
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax: 94 631 52 89



txitzeko dira, baina gizakiak beia naturak besteko kalteak egin leikiezala argi ikusi eban mendebaldeak New York-eko urri lehenengoaren 11n. Haren ostetik araudiak zorrotzagoak dira eta jentek egiten dauana kontrolatugado. Hori Zeanurira be heldu da eta presara larregi ez hurreratzeko eta jentek istripurik ez eukiteko neurri batzuk hartu dira. Lehen arrantzaleak edota paseoan ebizanak presa gainetik alde batetik bestera pasatzerik baeukien, baina gaur egun hori galazota dago.

Ez da hori jentearen erabilerari jagokonean aldatu dan gauza bakarra. Orain dala hiru urte ingurura arte, baina eremu bat egoan presa ondoan. Leku atsegina, kerizpea eta eguzkia, egoteko bedarra eta eserlekuak, dutxa eta beste zerbitzu batzuk eukazanak. Hondartzara joaterik ez eukien arratiarrak han hartu

eukien baidu freskagarri bat udan. Baina orain hori be debekatuta dago. Lekuak baidu eremuetako segurtasun araudia ez ebalako betetzen.

Dana dala istripuak ezin dira guztiz ebitau. Orain dala hiruzpa-

lau urte bertako langile bat presan itota aurkitu eben. "Segurtasun langilea zan eta desagertu egin zan. Ertzaintza eta buzoak ibili ziran urtegian bila eta azkenean gorpua aurkitu eben" dino Enrike Matias segurtasunekoak.



Undurragako urtegiko barruko instalazioak.



Undurraga urtegiko kanpokaldeko instalazioak.

## Presea

Altuerrea: Ur azaletik hondoraino 32 m.  
Kantauri itsasoagazko altuerrea: 212 m.  
Benta Altara bideratzen diran urak: 3.200 l/s.

### Ur-argindarra sortzeako tresneria:

Turtoki bi, semi Kaplan erakoak. Makinearen potentzia 1.275 kw.

## Bozkatu

PSE-EE  
PSOE



# BORROKA EZAZU NAHI DITUZUN GAUZENGATIK

## Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikola

### Arratia BHI

Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre

### Ikastola Arratia HI

Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

### Zubialde HI

Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

### I. Zubizarreta HI

Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre

### Areatzako Herri Eskola

Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

### Zeanuri HI

Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

### J.B. Eguskiza Meabe HI

Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

### Ugarana HI

Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Bigarren Hezkuntza, Baxilegiak, Hezkuntza zikloak

JANDONIZ  
nagusientzako etxea  
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

## Kendall Languages

- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz

- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elxalde 4 behea - 48.140 Igoerre (Bizkaia) - 94 657 73 48 - www.kendall-languages.com

## AIZKOREA

# Aitzol Atutxa: "Finalera heltzean dan lehenengo bizkaitarra izateak poztu egiten nau"

Oroimen askorik ez daukala aitortu badeusku be, 8 urtegez Artauneko jaietako plazan bere lehenengo erakustaldia egin ebala akordetan da. Laster izango dan Bizkaiko Banakako Txapelketarako prepartetan dabil, laugarrenez txapela Dimara ekarriko ete dau Aitzol Atutxak?

**Irati Urien**

**Elizondo, 2011ko zementiaren 6a: euria goitik behera botalean eta zure aizkorea be goitik behera ekinean. Frontoiko harmailetan Arratiatik joandako hiru autobuskada kamiseta bardinakaz bistan. Zelan joan zan Euskal Herriko Txapelketa hori?**

Lehenengotan sano ondo ibili nintzan baia azkenean bosgarren postua lortu neban. Halanda be, espero neban. Irabazteko asmoagaz baino azkenengo posturen baten ez gelditzeko asmoagaz joan nintzan eta lortu neban. Hurrengo abuztuan Urrezko Kopa jokatu den da eta bertara joateko aukerea daukat, bost onenen artean jokatu teko saikatu naz.

**Aspaldiotan ez da Bizkaian goi mailako aizkolaririk egon. Zer gaitik?**

Nik pentsetan dot afizinoak zerikus handia daukala. Azken baten, afizinozik ez badago ume zein gazteak gitxiago doaz kirol horreetara. Diru asko exijiduten dauan

kirola da aizkorea. Emoitzak lortzeako entrenau behar dozu eta horretarako ez bakarrik aizkorea, egurra be erosi behar da.

**Baina telebistan esaterako gero eta presentzia handiagoa dauka ezta?**

Bai, hori bai. Apostu bat egin dalako horretan. Domekero ordu beteko tarte egoten da arrastietan herri kirolentzat, aizkorearentzat gehien bat. Baina Bizkaia ez dago hartuta erreferentzia moduan. Nafarroa edo Gipuzkoan besteko zaletasunik ez dago Araban eta Bizkaian. Gure kasuan, zaletasun handiena Arratian dago. Izan be, lehenengoan Getxon egin zan Bizkaiko Txapelketa bai aizkora eta bai trontzan ia danak arratiarrak izan ginan.

**Hain onak gara eta gure bildur dira ala, beste herrietakoak?**

Bueno, maila egon badago baina justua. Euskal Herri mailan ez dogu hainbeste destakau bizkaitarrak neu heldu nazenera arte, eta zorionez neu izan naz lehenengo lehen mailako txapelketa baten sartzean. Final batera heltzean dan lehenengo

bizkaitarra izateak poztu egiten nau.

**Zelako prestakuntzea daroazu?**

Temporaldian nagoanean astean hiru bider entrenetan dot aizkora eta gero beste hiru egunetan fisikoa egiten dot. Aizkora teknika, indarra eta erresistentzia dira inportanteenak. Aita aizkolaria da eta ni be horregaitik naz aizkolari. Berak lagunduten deusta gehien bat. Barakaldoko Amando Larreak be asko lagunduten deusta, aizkorak prestatan... Unai Aldape Dimakoak be bai. Danok batera ibiltzen gara eta holan entrenamentuak arinagoak egiten dira.

**Aita aizkolaria zalako zeu be bardin edo zer dala eta hasi zinan mundu honetan?**

Ez. Txikitzen ez dozu pentsetan aita dalako zeu be izan behar zarala. Bospasei urtegez aita ikusten neban eta nik atzetik segiduten neban. Animau egiten neban, azken baten aita da. Eta umeak zer egiten dabe? Aitak edo amak egiten dauana kopiau eta nik hori egiten neban. Azkenean aizkora txikitxu bat egin eustan eta zazpi-zortzi urtegez hasi nintzan.

**Aitzol Atutxa.**

Gero destaketako aukerak euki nebazan eta horrek be lagunduten dau. Sekula be ez deusta derrigortu aitak.

**Zer dino Kepa Atutxak (aita) semearen inguruan?**

Pozik egongo da, dinot nik (barre egiten dau). Gustetan jakon kirolean, bere semeak destakau izana pozgarria da berarentzat. Gainera berarentzako laguntasun bat be bada, ze ni ez banintz aizkora egongo berak itxita eukingo eban igual. Ni be bera barik ez nintzateke ezer izango.

**Zelako nibela dago Europa mailan?**

Hiru hilabete egon nintzan Australiara igaz, hangoakaz konpetiduten, ingelesa ikasten... danerik apur bat. Sano desbardinak dira hangoak. Proba esplosiboak egiten dabez eta hemengoak fondokoak dira. Han egiten diran txapelketak egur batera izaten dira, egur txikia. Probarik luzeenak 30 segundu irauten dauz eta hemen laburren 20 minutu. Orduan, ez da bardin ehun metro lisu egiten dauan bat edo maratoi bat egiten dauan beste bat.

**Hango edo hemengo modua gurago?**

Hemengo, azken baten bizi izan dodalako. Gaur egun hemen be badagoz egur batera egiten diran torneoak baina bistosoago egiteko eta telebistan jentea erakarteko. Niri modu biak gustetan jataz, ze niri

gustetan jatana aizkorea da. Meritu kontua be ez da baina errezagoa da egur bat bakarrik ebagitea. Eurek segunduak asko hartzean dabez kontuan eta kolpeak neurtuta daukiez. Sano desbardina da. Egur batera diran proba gehienak eurak irabazten dabez baina behin hiru egurretik gora ez daukie zereginik gugaz.

**Pasau jatzu burutik inoz ixtea?**

Ez, ixtea ez. Ni hasi barria naz. Bartzuetan emoitzak onak ez diranean, ez zarenean gustura geldituten edo ez jatzuzanean gauzak gura dozun moduan urtetan, inoz pentsetan dozu "igual ez neuke segidu behar", baina hori egun bateko beroaldia izaten da. Aizkorea droga bat da, eta drogakaz gertatzen dan moduan ibi gura dozu baina ezin dozu. Ekonomikoki ez da honetatik biziteko beste irabazten. Honetan gabizenok behar bat daukagu eta hau *hobby* bat da.

**Etorrizunera begira ze asmo daukazu?**

Urtero-urtero helburu batzuk markeetan joan gara eta apurka-apurka maila hobetuz goaz. Aurten finalean sartu naz eta datorren urteko helburua be finalean sartzea izango da eta behin finalean sartuta bosgarren baino goratuago egiten badot hobeto. Bestela batez be finalean segidutea eta hartu dodan erritmoagaz ekitea. Gora heldutea nahiko gaxa izaten da baina goian mantendutea oraindino gaxtagoa.

**Elexalde**  
Meri eta Josetxu  
Pinturak (kolore guztiak)  
Egur babesleak  
Suteak eta behe-suak  
Garbiketa produktuak  
Lehendakari Agirre, 31 bis - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 673 62 34 - Fax: 94 673 72 38

**indar**  
instalazio elektrikoak  
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
t. 94 655 47 19  
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

NAIARA Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igore  
94 631 52 26

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA  
E. Agirre, 7  
48140 Igore (Bizkaia) Tlfono: 94 622 64 78

*Los Chopos*  
neurritza egindako armairuak  
And. Los Chopos, 33 (Nagar) Tel.: 94 430 40 94  
**Esposizinoa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**AKETEGIA**  
GAY & LORA  
IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala  
**San Miguel**  
Ardoak Edariak  
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloa (Igorre)

AHOLKULARITZA:  
LIGE-LAN ARLOAN  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DERU KONSTRUKTIBO  
ONDASUN HIGIEZKINEN  
ASIGURATUTAN  
Salduz Arana, 5 Tlfono: 94 673 71 41 - Fax: 94 673 64 01 - 48140 IGORRE

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3, 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94 673 70 87  
Tel: 609 79 40 54

**axular**  
kultur elkarrakia  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.a.**  
LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK  
Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: c.ekin@telefonica.net

*Pinturas Arratia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

## PELOTEA

# Euskal Herriko *One wall* txapelketea Lemoan

Lemoan lehenengo aldiz jokutzen da Euskal Herri mailako *One wall* txapelketea eta hilaren 26an izango da 12:00etatik 19:00etara.

### Erredakzioa

Aurten, Lemoako Pelota Eskolak antolatutako dau Euskal Herriko Pilota Federakuntzagaz batera. Arratiak pelotari on asko ditu jokamolde honetan. Izan be, lehenengo Euskal Herriko txapelketa Iker Etxebarria arteaztarra izan zan, 2003an Dublinen Munduko Txapela be lortu ebana.

Kepa Arroitauregi Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzako koordinatzaile orokorra erantzun deusaz begituren itaunai.

### Aurtengoa zenbatgarren edizinoa da?

Seigarrena, 2005ean izan zan lehen. **Zergaitik Lemoan?**

Pelotaleku bila ibiltzen gara, batzuetan jaiak dirala eta beste batzuetan bertako pelota gidariakanako konfiantza... Aurten Lemoan izateko arrazoi nagusi biak honeek dira: alde batetik Aitor Erauzkinen laguntzea, eta besteetik Arratian asko dirala joko honetan ondo moldatutako diranak eta ez dogulako inoz egin.

Aurreko edizinoak Durango, Azkoi-

tia, Matiena, Larrabetzu eta Iurretan izan dira.

### Zenbat pelotarik hartuko dabe parte? Nongoak? Zein kategoriari?

Oraindino ezin dot esan, izen emotea 15ean zarratutako dalako. Dana dala, aurreko urteetan 50 pelotari inguru izan dira.

Deitutako maila eta kategoriak 18 urtez azpikoak eta nagusiak dira, neska zein mutil, banaka zein binaka. segun eta zenbateko izen emotea egon, maila guztiak baina... momen-

tuz ez dakigu.

Gehienbat bizkaitarrak izaten dira jokotutako dabena baina arabar edo gipuzkoarrik be badago.

### Arratiakoak sano onak dira jokamolde honetan, ezta?

Lehen pelotari euskalduna munduko txapelketa izandakoa Arteako Iker Etxebarria izan zan, Dublinen 2003an. Euskal selekzioaren lehen partaidetza izan zan ordukoa.

Aurrerago eta 2006ko mundialean, Edmonton-en adibidez, banaka txapelketa Amantegi (Abadiño) izan zan, bigarren Aitor Erauzkin (Lemoa) eta hirugarren Ibai Erauzkin (Lemoa).

Euskadiko txapelketetan, 2005ean Etxebarria izan zan txapelketa, 2006an Ibai Erauzkin, 2007an Amantegi, 2008an Iker Etxebarria eta 2009an eta 2010ean bardin.

Euskal selekzioan Erauzkin eta Etxebarria nahiko fijoak izan dira beti.

### Euskal Herrian ezaguna da jokamolde hau? Noztik?

2003an ezagutu eben euskal pelotariak *One wall*-a. Hortik aurrera eta

oso ondo joan jakula mundialean ikusita aurrera ekin dogu Euskadiko txapelketak antolatu eta hortik taldeak atereaz nazinoartean lehiatzeko. Urtean behin egiten dan ekintza bat da batez be eskuzko pelotariak jokotutako dabena. Azken finean, *One wall*-ak sua zeozelan biztua izatea lortu gura da nazinoartean lehiatu ahal izan ezker prest egoteko. Gure kirolariak beste ate bat zabaldutea da pelotearen inguruan.

Honeguz ez da gure pelota baztertu gura edo bigarren planora pasatu, ahal izan ezker zergaitik ezin dogu ikurriña munduan zehar erakutsi kirol honeguz? Italian izan gara, Irlandan, Canadian...

Hemendik eratorria eta apur bat euskal pelotara hurreratu *frontball*-a be sortu da. Hor be badago bidea egiteko eta bertan asko jokotutako dabe Erauzkinen edo Etxebarriaren berak, Amantegi, Imanol Agirrek, Antxiak... Nueva Cork-en jokatu dabe lehenengo biak estatu batuetarraz, mexikarraz, kubatarraz...

## ESKALADEA

# Eskalada txapelketa herrikoia Igorren

### Erredakzioa

Kino Mendi Taldeak eskalada txapelketa antolatu dau Igorren udalategiaren ondoan dagoan boulderrean. Proba hilaren 19an, goizeko 10:00etan izango da.

Txapelketea izan arren "ez dauka izakera lehiakorrik eta herrikoia izango da. Federauta dagoan edonork hartu daike parte" azaldu deutso BEGURI Xabier Sagastizabal Kino mendi taldekoak. Txapelketearen ostean, bazkaria egongo da proban parte hartzean daben guztientzat, Kino mendi taldeko bazkideentzat, eta Igorrenko jaietan mendi taldearen txosnan lagundutako egon ziran guztientzat.



Igorrenko boulderrean eskaletan.

## ORIENTAZINOA

# Menditik gaubez iparrorratza eta linterneagaz

### Erredakzioa

Gaubez egiteko orientazio frogak bat antolatu dau Artea Kirol, Kultur eta Euskera Taldeak hilaren 19rako. Otxandiotik urtenda hiru ibilbide egongo dira, zailtasun desbardinakoak. Linterna eta iparrorratza behar dira

A ibilbidean izan ezik. Proba amaituenera, dutxak eta aldagelak egongo dira erropea aldatzeko eta txokolatea eta bizkotxoak indarbarrituteko.

Urteera 18:30ean Otxandiotik frontoian izango da. Parataideak linterna, iparrorratza eta mapeagaz horniduta hainbat

baliza topau beharko dabez Otxandio-Olaeta inguruan.

A ibilbidea egiten dabena Otxandiotik herritik ibiliko dira. Antolatzaileen esanetan, hasibarriz edo umeak egiteko da aproposa ibilbide hau eta partaideak 13 baliza topau beharko dabez 1.450m.ko inguruan. B ibilbidea barriz, nagusientzat be baina erraza izango dala dinoe antolatzaileak. Menditik 3.270 m. izango dira eta 20 baliza topau beharko dabez ibilbide hau aukeratutako dabena. C ibilbidea gatxagoa da eta 4.740 m.ko eremuan 12 baliza topau behar dira.

## MENDIA

# Biajeak eta mendiko paraje ederrenak argazki eta proiektzioetan Lemoan

### Erredakzioa

Zemendian, Ganzabal Mendi Taldeko bazkideak gehien gustatu jakien paraje eta egindako biajeen barri emongo dabe argazki erakusketan zein proiektzioen bidez. Holan, V. argazki lehiaketara aurkeztutako argazkiak ikusgai

dagoz mendi taldeak Lemoako eskoletan daukan lokalean. Gainera, zemendiko eguaztenetan, biaje eta eskaladaren gaineko lau proiektzio egongo dabez taldeko bazkideak.

### Andorreatik Kolonbiara

Proiektzioak hilaren 9an hasi ziran Karlos Aretxagaren *Ganzabaltarrak Andorreatik* lanagaz. Hurrengo proiektzioa, hilaren 16an izango da eta oraingoan lan bi eskeiniko dira: *Santiago-ra bizikletan* eta *Italiako Alpeak: Aosta* Andoni Linaza eta Esti Iriondoren eskutik.

Zemendiaren 23an oster, Txutxi Valderramak *Caras norte en los Alpes en los años 70* lana erakutsiko dau, eta azkenik, hilaren 30ean, Patxi Lopezen txandea izango da *Kolonia* ikusentzunezkoagaz.

## FUTBOLA

# Arratiarrak lider eta Lemoa jaitsiera postuetan

### Erredakzioa

Arratiako gizonen zein andrazkoen taldeak lehenengo postuan jarraitzen dabe. Talde biak partidu bat bardinu eta bestea irabazi ostean.

Lemoa taldeak oster ez dau bururik altxatzen. Partidu bat bardinu eta bestea galdu ostean 18. da sailkapenean 10 puntugaz.

## RUGBYA

# Astegoien ona Zekorrena

### Ainhoa Duñabeitia

Etetik kanpo jokatu dabe talde biak. Nagusiak Bera Berako bigarren taldearen kontra jokatu eben. Gureak ez eben arazorik euki puntuak ekarteko. Azken emoitzea, Bera Bera B 6 - Arratiko Zekorren 33. Hurrengo astegoienean deskantsua izango dabe.

Gazteak be fin ibili dira. Irabia Baztanen aurka jokatu eben azken norgehiagokoa eta azken emoitzea Irabia Baztan 0 - Arratiko Zekorren 39.

## BERBALDIA

## Arlo askotako adituak Baltzolako kobearen etorkizuna aztertuko dabe

## Erredakzioa

Baltzolan beharrean ibilitako Lidia Zapata eta Axlorreko indusketa arduraduna dan Jesus Emilio

Gonzalez Urkijo arkeologoak, Joserra Aihartza biologoa, Urtzi Uriarte espeleologoa eta Angel Larrea eta Abel Ariznabarreta historialariak batuko dira zemen-

diaren 19an, goizeko 11:00etan, Dimako Udaleko Batzar Aretoan Indusiko karst-aren etorkizunaren gainean eztabaidatzeko. "Indusiko karst-a Baltzola, zer egin?" titulupeko mahainguruan arlo desbardineta adituak aztertuko dabe kobearen eta bere inguruaren egoera eta zer egin daitekean "ingurune natural, historiko eta magiko" hau, antolatzaileen esanetan, hondatu ez daiten.

Egun horretan bertan egongo ez diran arren, Mario Saez de Buruaga "Indusi karst-aren erabilera publikorako araudiaren oinarriak" lanaren egileak eta Iñaki Antiguedad hidrologoak gaiaren gaineko interesa agertu dabe eta aurrerago ekarpenak egiteko prest dagoz.



Baltzolako kobea.

## KONTZERTUA

## Borja Estankona Areatzako Gaztetxean

## Erredakzioa

Borja Estankona arteztarrak, Itxaso Etxebeste eta Jimmy Arrabit lagun daukazala, kontzertua emongo dau hilaren 25ean, barikua, gaubeko 22:30ean Areatzako Laminetxe Gaztetxean. Kontzertua Ganoraz Arratiako Euskera Taldeak eta Areatzako Frakazuri Gazte Asanbladak antolatu dabe.



## MUSIKEA

## Larregi taldearen bideo-klipa



Larregi taldekoak bideo-klipa grabetan Igorreko Kultur Etxean.

## Erredakzioa

Zemendia hasieran Larregiren lehenengo bideo-klipa izango danaren grabaketa egin zan Igorreko Kultur Etxean. "Gure belaunaldia" kantu barria irudiz osotu dabe.

Grabaketa lanak Durangoko Bideografik Ekoizpenak enpresek burutu ditu (besteak beste, Alex Txikonen Himalayako azken dokumentala egin dauana). Kamera lanetan Eukeni Arriortua igorretarra ibili da, ikus-entzunezkoen munduan eskarmentu handikoa.

2010eko udan euren lehenengo maketea kaleratu ostean, abesti eta bideo barri honeek Larregiren lehenengo disko luzea izango danaren aurrerapen moduan datoz. Lan barriak 2012ko udabarrian ikusiko dau argia.

Larregik bere esker ona adierazo gura deutso, batetik Igorreko Udalarri Lasarte Aretoan grabetako baimena emoteagaitik eta bestetik David Antzuola "Fa" teknikariari.

Bideo-klip barria abenduan egongo da ikusgai.

## BERTSOLARITZEA

## Bertso afaria Ubiden Paia eta Estiballesegaz

## Irati Urien

Hilaren 19an, zapatua, bertso afaria egingo da Ubiden eta afaidu baino lehenago trikipotea. 20:00etatik aurrera izango da Urbide Elkartokian. Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia izango dira giroa berotuko daben bertsolariak. Afariko menua itzelezkoa izango da, detailez josia: hegaluze mari-

natua naranja eta limoi ikutuekaz, euskal txarriaren sahieski pastela aza salteatuagaz eta *bechamel* bitsagaz, tomate gorriak makailau brandadagaz beteak eta bere pil-pila, *rabu* kaneloi kriskanteak patata trufauagaz eta sagar karamelizatuak lagunduta, krema tostadak natilla arinakaz era izozkia pasinoaren frutuen gailleta gainean. Prezioa 22 eurokoa da.



**RUGBY TABERNA**

•Egin zaitez bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburetan pintxo bereziak

**ARRATIKO ZEKORRAK**

arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatze sistemak - Aire zurgintza zentralizatuak  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industriak, Pab. 07  
Tel. Fax 94 670 62 76  
819 734 616  
48142 Igorre Biskala



## ZINE KLUBA

# Wim Wenders zuzendariaren zikloa Igorren



Paris Texas filmaren irudi bat.

### Erredakzioa

Wim Wenders (Düsseldorf 1945) zuzendariaren hiru film ikusteko aukerea eskeintzen dau Igorreko zine klubak bi euroko prezioan. Filmok *Hammet* -gaztelaniara *El hombre de Chinatown* itzulita- *Paris Texas* eta *Land of Plenty* -*Tierra de abundancia*-. Igorreko Lasarte Aretoan, arrastiko 20:00etan ikusi daitezke filmok.

Hilaren 17an, eguenean, Alemania eta Frantziaren koproduzioa dan *Paris Texas* (1984), *road*

*movie*-a eskeiniko da. Wim Wenders beraren eta Sam Shepard-en gidioa dauka film honek eta Harry Dean Stanton eta Nastassja Kinski antzezten dabez personaje nagusiak.

24an, *Land of Plenty* (2004) eskeiniko da. Wim Wenders eta Scott Derrickson-en gidoiagaz, John Diehl eta Michelle Williams dira film honen lehenengo aktoreak.

*Hammet* (1982) film baltza hilaren 10ean egon zan Lasarte Aretoan, zikloari hasierara emonaz.

## LIBURUA

# Yurrebasoren liburua salgai

### Erredakzioa

Iker Yurrebaso igorretarraren *Haizea Aurpegi* liburua Arratia, Bilbo eta Zornotzan dago salgai 10 eurotan. Arratiari jagokonean, Areatzan, Bixer Tabernan eta Gaztetxean; Diman, Herriko Tabernan; Lemoan, Karabie Gaztetxean; Igorren, Herriko Tabernan,

Gau Lora eta Kukuma tabernetan eta Orria liburudendan; Zeanurin Sagarna txokoan eta Zeberio Herriko Tabernan erosi daiteke. Bilbon, Anti eta Gatazka liburudendetan dago salgai eta Zornotzan Aztertu fotokopiak egiteko dendan.

Begitu-lagunak doban jasoko dabe hurrengo egunetan euren

etxeetan.

### Internet bidezko begitu-lagun kanpaina

Horrezaz ganera, Zertu Kultur Elkartek abian ipini dau Begitu-lagunak internet bidezko kanpaina bat. Momentu honetan, 394 Begitu-lagun dagoz eta zenbakia gora doa etenbarik. Izan be, Begitu-lagun barriak Yurrebasoren liburuz gainera beste 5 liburu, CD bat eta postal bilduma bat jasoko dabe eta hotel baten astegoiara pasetako zozketa baten sartuko dira.

## MUSIKEA

# Kontzertu ugari Santa Zeziliaren inguruan

### Erredakzioa

Santa Zezilia eguna hilaren 22an bada be, eguna ospatuteko musika emonaldiak 17an hasi eta 26an amaituko dira. Arratiako Musika Eskoleak, Luis Iruarizaga Abesbatzak eta Areatzako Bandak, besteak beste, ekitaldiz betetako egitaraua prestatu dabe.

Luis Iruarizaga Abesbatzak eta Arratiako Musika Eskolearen abots taldeak kontzertua eskeiniko dabe hilaren 19an, Arteako eleizan. "Azken urteotan, tradizio bihurtu gura dogun kontzertua antolatzen dogu Luis Iruarizagakoak, Artean, bertako udalaren laguntzeagaz, Santa Zeziliaren ospakizuna aprobetxatuz. Eta Arratiako Musika Eskolari bertan dabiz gazteen abesbatzekoak geugaz batera izateko eskatu deutsegu, abesbatzetan izateko zaletasuna talde honeetan sortu

behar dalakoan" azaldu deutso BEGITURI Isaak Atutxa Luis Iruarizagakoak.

Areatzako Musika Bandak, barriz, kontzertua eskeiniko dau hilaren 26an 12:30ean, Areatzako Eleizan.

### Arratiako Musika Eskolako ikasleak be protagonista

Arratiako Musika Eskolak hainbat ekitaldi prestatu ditu hilaren 17rako Santa Zezilia eguna ospatuteko eta bertan herri guztietako ikasleak hartuko dabe parte. Holan, Igorreko flauta ikasleak eta Dimako gitarra ikasleak musika ipuin bat antzertuko dabe herri bietan. Diman eskoletan izango da ikuskizuna 17:30ean eta Igorren Haur Eskolan, 18:30ean. Bediako piano ikasleak eta Lemoako musika ikasleak be antzertuko dabe hori ipuinori Lemoako Musika Eskolan 18:30ean, eta



Kartelak.

horren ostean, 19:30ean, trikitixa ikasleak kontzertua eskeiniko dabe.

Areatza eta Zeberioko koru ikasleak eta Arteako musika ikasleak barriz, emonaldi bat egingo dabe Arteako plazan. Txalaparta eta alboka ikasleak be hartuko dabe parte emonaldi horretan.

## DUNBA

# Dimoztarrak Sukarrietan

### Dima-Ugarana ikastetxeko 5. mailako ikasleak

Urri bigarrenaren 3tik 7ra, ikasturtea hasi barri, Sukarrietara joan ginan Dimako eskolako hirugarren zikloko hogeita bat ikasle. Herri honetan dagoan Eskola Saiakuntzarako Zentroan pasau genduan urriko lehen astea.

Zentro honetan proiektu desbardinak lantzen dira: "Planeta berdea", "Itsasadarra", "Ura", "Lurra" eta "Basoa".

Guri "Basoa" lantzea tokau jakun; gure herria basoz inguratuta dagoanez, joan aurretik, hainbat gauza ezagutzen gendu-



Sukarrieta.

zan basoai buruz baina asko ikasi genduan aste haretan. Sukarrieta inguruko basoetara urteerak eginez eta irakasleen azalpenak entzun ostean hainbat gauzaz ohartu gara.

Klima erreguleta, euria erakarteko, airea garbitzeko, lurra eta biodibersidatea mantenduteko... ezinbestekoak doguz basoak, baina daukien garrantziaz ahaztu garalako egunetik-egunera desagertzen doaz, behar dan moduan ez tratetegaitik.

Gainera tailer desbardinak landu dira eta tailer honeetan gauza asko egiten ikasi genduan: Kosmetikan kolonia, hortzorea eta txanpua, sukaldaritzan patata tortila, erroskilak, pizza eta enpanadilak, argazkigintzan argazkiak hainbat ekintza desbardin, kuadernaketan karpetak, kuadernoak... ehungintzan, kolore askotako arteleagaz tapet polit bat .



Beste herri batzuetako ikasleak be egon ziran aste horretan geugaz batera, Leioakoak, Erorriokoak eta Barakaldokoak. Oso ondo konpondu ginan eta lagun barriak egin genduzan.

Ze ondo pasau genduan gauean logetan! Eta azken gauean "diskotekea" antolatu zan, primeran ibili ginan!

Eta holan joan zan gure astea, ikasten eta olgetan. Hurrengo baten be joateko prest gagoz!!

## AGENDEA

## ZEMENDIAK 16

## LEMOA

19:30ean, Olentzero. Batzarra udaletxean.

20:00etan, Andoni Linaza eta Esti Iriondoren *Santiagora bizikletan eta Italiako Alpeak: Aosta* proiektinoak. Ganzabalen lokaletan.

## ZEMENDIAK 17

## ARTEA

Arteko Musika Eskolako ikasleak eta Zeberioko koru ikasleak emonaldia plazan.

## DIMA

17:30ean, Arratiako Musika Eskolako ikasleak ipuin musikatuako eskoletan.

## IGORRE

18:30ean, Arratiako Musika Eskolako ikasleak ipuin musikatu Haur Eskolan.

20:00etan, zinekluba Wim Wenders. *Paris Texas* filma Lasarte Aretoan.

## LEMOA

18:30ean, ipuin musikatu musika eskolan.  
19:30ean, trikitixa kontzertua musika eskolan.

## ZEMENDIAK 18

## DIMA

19:00etan, Bardintasun Foroa, planaren aurkezpena udaletxean.

## LEMOA

22:00etan, kontzertuak Gaztebean. Txapa eta pintura eta Eskean taldeak. DJ-a ostein.

## ZEMENDIAK 19

## AREATZA

10:00etan, gaztainak batzean Areatzako Guraso Alkarteak antolatuta. 18:00etan, plazan gaztain errekin jan. 18:00etatik 20:00era *Euskal Jaia 2011* bideoa ikusgai egongo da.

## ARTEA

18:30etatik aurrera, orientazioa gabaz AKKTK antolatuta. Urteera Obandioko frontoian.

20:00etan, Luis Iruamizaga Abesbatzak eta Arratiako Musika Eskolearen abots taldeak kontzertua eleizan.

## BEDIA

18:00etan, Ipuin kontalaria *Todo a cien*



## Ipar haizearen kontra antzezlanak IKEn hilaren 19an

Zemendiaren 19an arrastiko 20:00etan izango da antzezlanak eta IKEko bazkideak doban eukiko dabe sarrerea. *Ipar haizearen kontra*, Vienako Daniel Glattauer idazlearen izenburu bereko eleberraren antzerkirako moldaketea da. Eleberririk horrek Alemanian arrakasta handia lortu eban salmenta aldetik. Lan horren antzerkirako moldaketea, barriz, gaztelaniaz be egin da, eta ikusleak oso harrera ona egin deusie. Igorren antzezlan hau euskeraz ikusteko aukerea egongo da. Itziar Aienza, Joseba Apaolaza eta Felix Arkarazo aktoreak dira protagonistak.

Leo Leikek emakume ezezagun baten posta elektronikoko mezua jaso dau akatsen batengaitik. Heziketa onekoa danez, erantzun egin deusio eta ezezagun harentzako erakargarria ei danez, emakumeak barriro idatzi deusio. Desio sekretuetarako leku seguruagorik al dago mundu birtuala baino? Holan, apurka-apurka, atzera bueltarik ez daukan alkarriketea hasi da. Emoten dau denpora kontua dala aurrez aurre alkar ezagutzera, baina idea horrek hainbeste bildurtzen ditu gurago dabela topaketea atzeratu.

*antzerki taldea*. Trasteleku. Liburutegian.

## DIMA

11:00etan, "Indusiko karst-a Baltzola zer egin?" izeneko mahaingurua.

## IGORRE

09:00etan Mandoiara urteera. Lurrainek Gazte Asanbladak antolatuta. Kultur Etxean.

10:00etan, Kino Mendi Taldeak antolatuta eskalada txapelketea. Udaletxe ondoko boulderrean.

## UBIDE

20:00etan, bertso afaria. Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia.

## ZEMENDIAK 22

## IGORRE

19:30ean, *Egunon printzesa* film laburra Institutuko irakasleak egindakoa eta Emakumeengako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren programaren aurkezpena Kultur Etxean.

## ZEMENDIAK 23

## LEMOA

20:00etan, Txubi Valderramaren proiektinoak *Caras norte en los años 70*. Ganzabalen lokaletan.

## ZEMENDIAK 24

## BEDIA

17:00etan, tailerra: "kutxatila". Liburutegian.

## IGORRE

20:00etan, zinekluba *Land of Plenty* filma.

## ZEANURI

18:00etan, Indarkeria sexistaren prebentzioarako tailerra Idoia Legarretak zuzenduta Kultur Etxean.

## ZEMENDIAK 25

## AREATZA

22:30ean Borja Estankonaren kontzertua

Gaztebean. Ganoraz Euskera Taldeak eta Frakazuri Gazte Asanbladak antolatuta.

## BEDIA

19:00etan, Zineforuma, *Agua* filma. Ostein barauskarria. Eskoletan.

## DIMA

17:00etan, Dimako andren memoria historikoari buruzko topaketea eta barauskarria liburutegian.

## IGORRE

19:00etan, Indarkeria sexistaren kontrako kontzertinoak Kultur Etxean

19:30ean, Arratia-Palenque erakusketaren aurkezpena eta misinolaria omenaldia IKEn.

19:30ean, Etxerat-ek antolatuta presoan aldeko kontzertinoak.

## LEMOA

"Bildur barik! Jantzi daigun Lemoa lilaz" egun osoan indarkeria sexistaren kontrako ekintzak.

## ZEMENDIAK 26

## AREATZA

12:30ean, Areatzako Musika Bandaren kontzertua.

18:00etan, indarkeria matxista salatzen daben ipuin eta poemak, *No tengas miedo* filma.

## IGORRE

22:00etan, zinea *Urte berri on amona!* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

12:00etatik 19:00etara, Euskal Herriko *One wall* txapelketea kiroldegian.

## ZEMENDIAK 27

## ARTEA

17:00etan, Bideoforum-a *Nagore Laffage* filma.

## IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Otra película de huevos y un pollo*. 19:30ean, zinea *Urte berri on amona!* Lasarte Aretoan.

## ZEMENDIAK 30

## ARRATIA

San Andres jaiak Urkizun (Igorre) eta Asterian (Zeanuri).

## ABENDUAK 1

## IGORRE

18:00etan Parthartzeko foroaren batzarra Kultur Etxean.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## SALTZEAN DOT

Vespa Iris 200 motorra. BI-9307-BL 650€ren truke. Kapritxu bat. Deitu 645 006 293 telefonora.

## SALTZEAN DOT

Mendiko bizikletea (BTT) saltzean da. 10-13 urterako. Gitxi ibilita. Prezioa: 60€. Interesdunak deitu 634 410 259 (Luis) telefonora.

## ETXEA SALGAI

Areatzako Askatasuna kalean 125 m<sup>2</sup>ko pisu ederra salgai. Telefonoa: 646 448 869.

## AUTORAKO AULKIA SALGAI

Autorako segurtasun aukia salgai. Römer Duo Plus-Isifix. Group 1 (9/18 Kg). Grisa eta baltza. Oso egoera onean. 626 385 581.

## DANERIK

## APARTAMENTUA ALOKAIKUAN

Suancesen apartamentua alokairuan. Asteburu, astebarru zein edozelan alokatzeko. 4 pertsonentzako.

Apartamentu barria. Telefonoa 677 497 985.

## AURRESKUA IKASI GURA DOT

Aurreskuaren Kontrapasa ikasteko eskolak hartzea gura dodaz. Zapatu arrasti edo domekan izan beharko litzateke. Nonor eskolak emoteko prest badago, honako telefono-zenbaki honetara deitzea dauka: 659 059 194.

## GARAJEA ALOKAIKUAN

Igorreko Sabino Arana 34-35 zenbakietan garajea alokairuan. Interesdunak deitu: 615 731 182 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doan dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Ipar Haizearen kontra antzezlanak* ikusteko.

Pili Munarriz (Lutxana)  
Itxaso Bengoetxea (Igorre)



2

Igorreko Udalak emondako Gontzal Mendibilen CD bana.

Alex Agirre (Areatza)  
Mari Angeles Larraondo (Zeberio)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.



## JOSE ANGEL MINTEGI

## "Basoaren esentzia parebakoa transmitiduten daben irudiak egitea bilatzen dot"

Jose Angel Mintegi Bilbao, guraso arratiarrak izan arren Bilbon jaio zan, "pasa dan gizaldiko urri lehenengo baten, orain dala berrogeta hamar urte luze". Igorreko kiroldengan egiten dau behar, baina argazkigintzan sari asko irabazi ditu eta argazki erakusketak be egiten ditu.



Clara Luja

### Aspaldi honetan sariak jaso eta jaso zabiz, ezta?

Bai. Orain dala gitxi hasi nintzan lehiaketetan parte hartzean, lehen ez nintzan hain zalea. Igorreko jaietako lehiaketan aurkezten nintzan kolaboretako eta jaietan gehiago parte hartzeako. Baina igaz Zomozako mikologia argazkigintza lehiaketara aurkeztu nintzan eta lehen saria irabazi neban. Aurton, hirugarren saria irabazi dot Zomozan, akzesit bat Valentziako lehiaketa mikologikoan, bigarren sari bat Vilagarcia de Arousan eta lehenengoko sari bi: bata Fogars de Montclús-en (Bartzelona) eta bestea Colindres-en (Kantabria). Urte honetan ezin naz kejau, egia esan.

### Noz hasi zinan argazkiak ateratzen?

Bederatzi urte nebazanean La Salle eskolako "Escolanía de

Tiples" koroan abesten neban. Hori zala eta, Italiako Loreto herri- ra egin genduan biaje bat eta gurasoak emergentzietarako emon eusten diruragaz erosi neban nire lehen argazki makinea. Oraindino gordeta daukat makina hori.

### Argazki onak aterateko makinak zenbateko eragina dauka? Zeintzuk dira onenak, zure ustez?

Personearen arabera, batzuentzat onena Leica da eta beste batzuentzat Canon. Baina dana ez da makinea, "makiniesteak" be garrantzia handia daukala uste dot. Askotan, dana dala, jenteak ez dau bere makinak daukan potentzial guztia aprobetxetan.

### Trikimailurik erabilten dozu argazki onak aterateko?

Trikimailuak praktiketan ikasten dira, esperientziagaz. Niretzat, garrantzitsuena pazientzia eukitea eta argiztapen ona aukeratzea da. Argiak berebiziko garrantzia

dauka argazkigintzan. Honetaz aparte, modu autmotikoan inoz ez ateratzea gomendatzen dot, holan ez da ezer ikasten eta.

### Gaur egun, mundu guztiak dauka argazki makina bat...

Argazkigintzearen mundua aurrera egiten dabil. Aro digitalaren etorreratik, sistema digitalak argazkiak segiduan ikusteko aukerea ekarri dau. Makinak eskuratzeko erretasunak argazkigintzea danon eskura egotea eta sozializetea egin dau posible.

### Zelako inpaktua izan dabe teknologia barriak argazkigintzan, zure esperientziaren arabera?

Lehen esan dodan moduan digitalizazioak praktikearen sozializazio masiboa ekarri dau. Eta ezin doguz ahaztu interneten dagozan argazkigintza foro eta guneak: han argazkilariak euren lana konpartidu, komentau eta hobetu egiten dabe, besteen partehartzeari esker. Ni neu be ba-

nago argazkilari horreen artean.

### Ze proiektutan zabiz orain?

Aspaldi honetan argazkigintza mikologikoan nabil. Arauetatik kanpoko argazkiak egitea bilatzen dot, eta ez liburu eta gidetan agertzen diran argazki klasikoak. Basoak gordetzen daben esentzia parebakoa transmitiduten daben irudiak egin gura dodaz, ilusinoa eta sormena transmitiduten daben argazkiak. Oso konplexua da zizak sano bereziak diralako, baten DNAk dinosaurus batenagaz piper batenagaz baino antza handiagoa dauka, adibidez. Zein da zure ustez argazkietan ondoen emoten dauan Arratiako lekua?

Arratia eta bertan bizi diran personak sano ondo emoten dabe erretuetan, baina nire espezialidada dala eta, Gorbeia aukeratzen dot.

### Etorkizunerako planik?

Praktiketan eta praktiketan segiduko dot. Argazkigintzea etenbako ikasketea da.

"Digitalizazioak argazkintzearen sozializazioa ekarri dau"

"Perretxiko baten DNAk antza handiagoa dauka dinosauro baten DNAgaz piper batenagaz baino"

# Eraiki zubia

batasunari – gatazkaren konponbide demokratikoari  
– burujabetzari – beste eredu sozial bati –  
langileon eskubideei



Azaroaren  
20an

emon  
botoa

